

NAFARROATIK NAFARROARA

EPILOGO GISA

JOXE AZURMENDI

I

Oroitzapen zaharretan elkarrekin paseatzera gonbidapen bat izan da niretzat adiskidearen saio bixi-bixion irakurketa. Nafarroako Erriberri-Olitetik hasita. Nire euskaltzaletasunaren hastapenetatik nolabait. Han aurkitu zizun hunkiturik, fanatikoa ez, gure irakasleak aski liberalak ziren denak, baina oro har hezkuntza espainol nazional-katoliko zapal-zapaletik zertorren honek, Euskal Herriaren historia nafarra, A. Campionen *Nabarra en su vida histórica* liburuarekin batik bat, nik komentuko bibliotekan topatu nuena. Iturralde y Suiten izkriburen batzuk irakurri nituen orobat, ez naiz gogoratzen zeintzuk, eta Altadillen Gaztelu Nafar Ertarotarrak. Ordura arte historia guretzat Espainiako historia zen. Humanitateetan ikasten genuentxo. Errege Katolikoak, El Gran Capitán eta beste, “Cien Figuras Españolas”. Euskal Herririk edo euskal historiarik ez zen existitzen. Oliten filosofia estudiatzen genuen, ez historia. Geroago, E. Majueloren *La idea de historia en Arturo Campión* (2011) irakurri ahala eta, autoreok nola irakurri ote nituen garai hartan galdetzen nion neure buruari, espainol bezala eskolatua, euskal historiaren arrastorik ez, inolako prestakuntzarik eta irizpide kritikorik batere gabe arlo

historikoetarako, beraien testuek eta nire irudimenak ematen zidaten argitasunarekin bakarrik. Erriberri-Oliteko komentua, erregeen gazteluaren aldamenean XIII. mendean fundatua, konkistako nahasmenduetan Cisneros kardinalak, frantziskotarra bera (“España le debe la conservación del reino de Navarra”), Nafarroako beste gaztelu eta gotorleku askorekin batera eraitsarazia izan zela ikasten nuen Campiñengandik (“destruyó el maravilloso convento de Franciscanos de Olite”). Gure garaian ehun fraide eta fraideki ingururentzako eraikin berri itzela zen Kantabriako Probintziaren filosofiako ikastetxea. Hiru urtez estudiatzen genuen han. Aurrez aurre gaztelu galanta oraindik arruinetan orduan, zabartua, nornahi sartzeko libre. Han ez zen inor egoten begiratzen edo lanean, noizean behin harri-pikatzailereren bat baizik. Maiz ibiltzen nintzen atzera-aurrera arrats libreetan, soto ilunetan barrena –beldur ikaraz–, dorre argietan gora, hamaika bider ikusitakoak beti berrikusten, eta ikusi gabekoak neure kasa fantasia-tzen, txokoak eta guduak eta istorioak. Hamazortzi-hemere-tzi urte izango nuen. Gazteluak, Oliteko Santa Maria eta San Pedro elizek, sekulako berotan San Martin eta Uxue edo Miranda eta Falzeseraino oinez ibili nituen malda eta mendiek, Tafalla aldera egindako pasealdiek Zidakosen errecondoko makaldi fresko eta baratze eguzkiz bete artean, edo kamioien errepide bazterrekoek Pitillasko urmaelera... esan nezake Nafarroak barru-barruraino harrapatu ninduela, parajeak, jendeak, komentuko bibliotekak – eta historiak. “Olitejoentzat” (oliteko?) filosofiako ikasleok “los vascos” ginen, giputzak eta bizkaitarrak gehienak eta mendialdeko nafarren batzuk. Berak ez ziren kontsideratzen baskoak, eta gutako gehienek ere ez zeuzkaten baskotzat haiek. Paisaia ere ez, gutako gehienentzat. Uste dut salbuespena nintzela. Bat-batean, Campiño-

nen historia irakurtzen hasi eta, “ese actor en Nabarra es el Baskón” dunbadarekin hasten zaizu. “Los Baskones son los progenitores y predecesores de los actuales nabarros, a la vez que los únicos representantes históricamente conocidos, en la antigüedad clásica, del pueblo basko moderno”. Nafarkumea ote nintzen? Bitartean literatura asko dago gai hauetaz edozeinen eskura, eta oraingo gazteek, zentsurak debekaturik edo hezkuntza sistemak eragotzirik biblioteka osoak egotea zer den ez baitute ezagutu, nekez ulertuko dute, baina niretzat, 50. azken urteetan, errebelazio baten tximista izan zen. Dударик gabe, lehendik nenbilelako jada, lagunen batzuen adigurian, halako zerbaiten bila ohartuki edo oharkabean. Campi3n argi definitiboa izan zen. Uste-ezustearen altxorraren uhar-tea aurkitu izanaren sentsazioa. Historialari iruindarra idazle gihartsua da. Dramatikoa da konkistaren kontakizuna, urraduraz eta pilpira mintsuz kargatua. “Nunca un pueblo pierde la vida nacional sin culpa que le sea imputable. Y Nabarra, singularmente en su historia reciente [hori 1936 zen niretzat!], ha padecido de accesos de estupenda locura”. Nafarroaren konkistan berealdiko zerikusia Aita Santuaren bulda batzuek –ez oso santuak, esango luke Prudenek– izan zuten. Campi3n katolikoak arreta zolia eskaintzen die bulda horiei, edo horien gezurrari. Ebazpen ozipin honekin ixteko: “el verdadero conquistador no fue el Duque de Alba, sino Julio II” – berau ere frantziskotar komentualetakoa (ez zuen gaizki ikasi nola ez izan frantziskanoa!). Bukaera aldera ataltxo bat dauka “Filosofía de la historia de Nabarra”, konklusio honekin: “Nabarra cada día va siendo menos baska, y cada día menos nabarra también. La ley de degenerescencia es doble: la una vacía el contenido basko; la otra, el contenido nabarro; esta segunda ley opera con mayor lentitud que la otra. – De los buenos na-

barros depende que la filosofía de la historia de Nabarra, en vez de una filosofía de la muerte, sea una filosofía de la vida". Erriberri-Olite nire bizitzako garairik argitsuenetakoa izan da.

2

Handik bospasei urtera, Andonegik eta biok Erroman estudiatzen genuen. Erroma eta Ernazimentua beste gelto-ki erabakigarri bat izan da nire ibilbidean. Gogoan dut hango kale eta parkeetan biok Kanten filosofiari buruz egundoko elektak erabiltzen genituen urtea. Andonegik Kant sakon jorratzen ziharduen, nik ideiarik ez neukan. Arteak eta historiak gehiago tiratzen ninduten. Biok ere, Arantzazu eta Oliteraino behar beste inoiz heldu gabeko modernitatea deskubritzen ari ginen nolabait. Via Merulanan bizi ginen. Gure etxetik ez zen urruti egiten San Pietro in Vincoli, eta behin baino gehiagotan joan izan nintzen, bakarrik edo ikaskide euskaldunen batekin, Julio II.aren mausoleorako, Michelangelok paraturiko Moises larderiatzaileari begira orduak egotera, txanpon batzuekin argia piztuta edo basilikako ilunduran. Lehenago ere hamaika aldiz begietsia zuen, baina 1912ko udaren azkenetan, hiru astez ia egunero egon da Freud orduak eta orduak, emazteari idatzi dionez, marmol indartsuzko estatuari so eta so, detaile guztiak banan-banan miatuz, neurtuz, marratuz. 1914an *Michelangeloren Moises* argitara du, estatuaren araketa xehea, bere ikuskera eta interpretazioa artearen hainbat historialarirekin kontrastatuz. Freudek Michelangeloren Julio II.arenganako urruina eta gaitziritzia sumatu uste du hain zuzen ere haren ohoretan landutako monumentuan (artistaren eta Aita Santuaren arteko harreman bihurriak ezagunak dira; Kapera Sistinoa erakusteko anekdotarioan, gidak beti sartzen du harreman

mingots horien aztarnak seinalatzea turisten dibertigarri). Freudentzat, hala dio berak, obsesio bat bihurtu da Moises hori, “juduak sortu dituen, bera bakarra gizona”. 1938an, nazional-sozialismotik ihes egin ondoren, Londresera, *Moises gizona eta erlijio monoteista* idatzi du, Moises gizonaren eta judaismo monoteistaren interpretazio psikoanalitikoak, Michelangeloren estatuarena baino ezagunagoa zaiguna, *Totem eta Tabu*-ren osagarria bezala delako. Kultura eta zibilizazioaren (gizartearen) hastapena seme zafatu eta sexualki eragotziek hordaren aitaso terriblean hilketan eta gero damuan suposatuen duen eran, handik harako Edipo, errepresio eta konplexuekin, antz-antzeko eskemarekin saiatzen da judaismoaren eta monoteismoaren sorrera azaltzen. Moises bera ez da zen judua, goi funtzionario egiptoar bat baizik, Egipton jopuz zeuden judu politeistei Akenaton-en “monoteismoa” inposatu eta, faraoi horren iraultza erlijiosoak porrot egitean, kontrairaultzatik ihesi, haiek Sinaiko mortuan barrena bidatu dituen. Halako batean judu gorbiziek matxinatu eta Moises hori hil egin izango zuten. Gero damutu eta buruzagiaren oroipena guztiz magnifikatu, eta monoteismo zorrotzenez erradikatu. Moisesen misterioa, judaismoaren eta monoteismoaren misterioa, “bat-batean ulertu dut Michelangelori eskerrak”, adierazi dio emazteari. Askotxo ikustea ez bada...

Ene begiek Ernazimentua besterik ez dute ikusten. Ernazimentu erromatarra, *il cinquecento* (Florentzia beste historia bat da). Problemarik gabe ezkondu dituen artista gorenaren arte sublimena eta Aita Santuen brutalitate eta krudelkeria basatiena. Despotaren buru keinuaz, burgoi, destainazko begiradarekin herriaren gainetik urrutira, bizar kaskada eskuin eskuko hatz puntekin eutsia luzean behean erortzen ez lagatzeko, Julio II.aren hilobirako Moises honek irudikatzen

duena eta plastikoki ikusleari ikusarazten diona Israel berri Elizako buruzagi terriblearen oldar politiko-militarra da, hura izan den bezalaxe. “Il Papa guerriero”, “il Papa terribile”. Europako erregeak elkarren aurka xaxatu, gerrak edonon piztu, etsai guztiak hankaperatu, familia nobleak gupidarik gabe barreiatu, hiri burgesak zanpatu, aliatuak engainatu, lagunak unecoro manipulatu, gaur zin egindakoa bihar zinautsi duena, doktrina ebanjeliko eta moral ororen haraindi jokatuz beti edozein arlotan, maltzurkeria eta biolentzia eta bere anbizioa beste legerik gabe. Michelangeloren harlandu txurian Moises ez da basamortuko profeta. Nagusikoi dago eserita Aulkian, sorgor, titaniko, eta Jainkoaren Legearen Taulak, ez bi eskuekin gora jasorik, ezpabere axolagabeki besapean lagata dauzka. Legearen gaisetik dago. “Quello spirito diabolico”, epaitu du Machiavellik.

3

Historia guztian Della Rovere eta Borgiatarren menturak begiztatuak ageri dira, eta bion goiti-beheiti zoroetatik dingilizka Nafarroaren patua. Borgiatarrekin hastea dut errazena. Borja/Borgia leinuak Aragoi zuen jatorria, Nafarroako mugan (Krutwigek ez dakit haien euskaltasunaren ustea nondik zeukan). Valentziaren konkistan Jaume I.arekin parte hartu eta harrezkero hiri horretan zegoen familia finkatua. Gure historian aintzat hartzeko lehen Borja Kalisto III. Aita Santua da (1378-1458). Aragoiko Koroaren zerbitzu leialean asko ibilia, Alfons erregearen influentziak hura Aita Santu hautatua izatea erdietsi du (1455). Nepotismo itzelagatik nabarmendu dela aparte, Frantziarekiko harremanak gozatzearen, Joana d’Arc-en prozesuaren berrikustea agindu du eta hura *post mortem* heresiaren kondetatik eskulpatu

(nazionalismo frantsesari kontzesioa). Gerora ondoriotsua-
goa, bere loba Errodrigo (Roderic) Borja gaztearenganako
adiguri gehiegizkoa eta horren itxuragabeko biziera libidotsu
eta diru eta botere gosearekiko laxokeria izango da. Hurren-
go Aita Santuek beren zeretan ziharduten bitartean, izena
Borgia italieratua zuen Errodrigo eta Giuliano della Rovere
kardinal gazteen eta euren familien artean, zein baino zein
anbiziotsuagoak biak, etsaigorik amorratuena sugartu da.
1492an Errodrigo Borgia Aita Santu hautatua izan da, Ale-
xandro VI izena hartuz, eta della Rovere kardinalak agudo
eta larri Rocca di Ostian ezkutatuz salbatu du larrua. Aita
Santu berria auzi diplomatiko larri batekin kausitu da. Fran-
tziako Karlos VIII.ak Napoliko tronua, behiala Anjoutarrek
ukana eta arestian aragoiarrek, bere ondareztat galdegin du.
Alexandro VI.ak aragoiarraren alde ebatzi baitu, errege fran-
tsesa Italiara martxan jarri da, Della Rovere kardinalak ahol-
katu eta bultzaturik –Borgiarengandik eskapatua, Frantzia-
ko Gortean errefuxiatua–, tropa handi batekin, Della Rovere
kardinala beti aurretik. Ipar Italia aise menderatu du. Flo-
rentziak, Savonarolak asaldatu eta Medicitarrak iraitzi berria,
ateak zabaldu dizkio “askatzaileari”. Aita Santu “simoniako,
heretiko, sinesgabea” uzkaitezera hots egiten du Savonaro-
lak. Erroman inolako erresistentziarik aurkitzeke sartu dira
tropa frantsesak, Aita Santua ustelkeriagatik kargutik erau-
ziko dutela aldarrikatuz. Alexandro VI.ak Sant’Angelon es-
kudatu behar izan du. Tirabira eta tratu zailen buruan, erre-
geak Aita Santuaren autoritateari men egin dio eta Aita San-
tuak errege frantsesaren zuzena aitortu. Hau arazorik gabe
jabetu da Napoliz. Seguru sentitu den orduko, alabaina, Ale-
xandro VI.ak Aragoi, Habsburgoen Inperioa, Venezia, Eliz
Estatuak eta hainbat jaurerri italiarrekin Liga Santua batu du

frantsesaren aurka, honek hanka-soinu batean hustu behar izan baitizu Italia. (Savonarola Florentziako plazaren erdian kiskalarazteko ordua da).

Savonarola, “profeta desarmatua” Machiavelliren hitzetan, erabateko iraultzaren eta iraultzaren fiasko erabatekoaren paradigma kontsidera liteke. Utopia eta programa nahastearena. Hasiera batean hiritarrek adoratua, gero etsaiek atxilotua, berrogeita bi egunez torturatua, bere jarraitzaile gehienek ere –beldurrez– abandonatua bukatu du. Izan ere, “profeta armatu guztiek asmatu zuten eta armarik gabe zudenek huts egin zuten” (*Printzea*, VI). Predikuaekin nahiz praktikarekin erakutsi du hiri burgesaren eredu oligarkiko medicitarraren aurka beste eredu bat posible dela, populistak (“austeritate politika”rena, esango litzateke gaur), eta Eliza erromatar ustel baten aurka posible dela Eliza ebangeliko pobre eta pobreentzako bat. Erakutsi du halaber, ordea, Jerusalem Berriaren utopia zerutarrak, haur-polizia eta banitateen suekin, katastrofe infernutarrera baino ezin duela eramanez. Historia miragarri bezain tragikoa, pasadizo sordiekin. Argikusle karismatikoa San Marko komentuko goardianoa zen. Gelaz gela, Fra Angelicoren fresko zoragarriek Ernazimentuan zaudela akordarazten dizute. Torquemadaren urte berean hil da, 1498, biak domingotarrak.

Luis XII.aren Borgia-erregeari hobeto konpondu da. Errege frantsesak, Milango Dukerria jaraunsteko eskubideak auzitan zirela eta, eskubideen berrespen galdean Aita Santuarengana jo du. Alexandro VI.ak, Dukerri hura bere seme Cesarentzat amestua izan zuenak, ez dio gaizki kobratu: Milan errege frantsesarentzat, baina trukean Cesareri babesa eta laguntza ematekotan Romagnako eskualdeaz jabetu eta nagusi altxatzeko. Gainera, Aita Santuak Luis XII.aren esposarioa

Joana Valoisekin anulatu du (hogei urtean ezkontide izan eta gero – konpentsazioan edo, Pio XII.ak santa deklaratu-ko du!), Britainiako Anarekin ezkondu ahal zedin. Cesare Borgiari, errege frantsesak Valentinoiseko duke izendatua, Charlotte d’Albret printzesa eman zaio emaztetzat, Nafarroako errege Joan III.aren arreba. Horra Borgiatarrak eta Frantzia/Nafarroa elkarlotuak. Frantziako babesaz gabetua, Della Roverek aliantzen estrategia aldatuko du: haren itua frantsesa porrokatzea izango da, eta espainolak izango ditu laguntzaile.

Promesteko denak eskuin-ekzer parrastan promestuz, bando kontrarioak bateratzen eta etsaiak ere, borgiatarren alderdia barne, bere aldera biltzen asmatu-rik, 1503ko aza-roan Giuliano della Rovere ia ahobatez izan da Aita Santu hautatua, Julio II izena hartu duela (Julio, Cesare: ikusten da erromatarron kontzientzia inperiala). Borgiaren hutsegi-te larria, iritzi dio Machiavellik, bestela Cesare Borgiaren go-reslerik beroenak (ikus *Printzesa*-n VII. kapitulua). “Hautes-kunde haietan dukeak hankasartze handia egin zuen eta han-dik etorri zitzaion hondamena”. Della Rovere kandidatuak Cesareri bere kargu guztiak mantendu eta Romagnako kon-kista guztiak gorde ahal izatea hitzeman dio. Aita Santuaren kargua hartu eta segituan atxilotarazi egin du, gotorleku eta hiri konkistatu guztien utzietsia sinarazi, eta Napoliko espai-nolei entregatu die gero (Gonzalo de Cordoba). Hauek, tor-turatu ondoren, Espainiara igorri dute bahi politikoki dese-rosoa. Medina del Campoko gatzeluko ziegatik ihes egitea lortu du eta, ezkutuka eta herrenka, Santanderrerraino iristea. Merkatarri bizkaitarren ontzi batek Castro Urdialesera ekarri du, handik mandoz Bermeo, Durango, Bergara, Atallu eta Azpirozko mendatetik Iruñera sartzeko 1506ko abenduaren

3an. 1507ko martxoan Vianan hil da, 31 urteko, Nafarroako erregeen independentziaren defentsan.

Izendapen egunetik heriotzara arte, atsedetik hartu gabe, Julio II.a beti zaldi gainean eta armatua ibili da Aita Santu ("Papa in armatura"). Lehen egunetik ekin dio Alexandro VI.aren aroan Eliz Estatuak galdutako lurraldeak birkonkistatzeari. Cesareren dominioak eskuratu bezain laster, Veneziari erasotzeko Frantziako errege Luis XII.arekin, Maximiliano enperadorearekin eta Aragoiko Fernando II.arekin aliatu da (Cambraiko Liga). Venezia eskumikatu du (eskumikuen eta interdikto lokal zein pertsonalen arma erlijioso-politikoak erruz erabili du: Bolognako Bentivoglio, Alfontso d'Este, Florentzia, Pisa, etc.). Agnadelloko guduan Veneziako Signoria betiko abarrikaturik (1510), hantxe berean, beti garbi ukan baitu egiazko arerioa Frantzian zeukala, horren eta horren aliatuen aurka itzuli da: atoan eraso die Estetarrei, Genova matxinarazten saiatu da, Ferrarako dukeari eraso eta eskumikatu du; Modena inperialei laga, horien laguntza ziurtatzeko. Penintsulako iparralde guztia sutan jarri du. Monarka frantsesak hordago handira bota dio: kardinal frantsesen kolegioak (politika nazional/nazionalistaren tresnarik baliotsuenetakoak kardinalen kolegioak izaten ziren) Kontzilio bat konbokatu du Pisan 1511ko irailerako, Eliza erreformatzeko aitzakiaz, baina Aita Santua ordezkartzeko xedez. Julio II.ak konbokatoria hori baliogabeko deklaratu, kardinal konbokatzaileak eskumikatu (horien artean Bernardino Carvajal eta Frantzisko Borja), Pisari interdiktoa ezarri kontzilioa bertan egitea onartzen zuelako, Florentzia ere eskumikatu, eta bere Kontzilioa 1512ko apirilera Lateran-en deitu du. Presa zuen eta, bitartean, 1511ko urrirako Liga Santu anti-frantsesa lotua zizun Venezia, Suitzako kantoiak, Ingalaterra,

Maximiliano eta Aragoiko Fernandorekin, frantsesak Italia-ko edonondik betiko irazitako jomugaz (“libertà dai barbari!”). Veneziari eskumikua altxatu eta Frantzia “zismatikoa” eskumikatu du. 1512ko apirilean Pisako Kontzilioak (orain Milanera erretiratuak) Aita Santua suspenditua deklaratu du. Maiatzean Julio II.ak Laterango Kontzilioa inauguratuz erantzun du. Honen lehenbiziko lana Pisakoa ilegitimotzat ematea izan da. Iparraldean gerrek atergabe jarraitzen dute. Hiriak eta gotorlekuak, behin irabazi eta berriro galtzen dira, alde batekoek zein bestekoek harpilatuak. Hainbat su odoltsuren buruan, azkenean tropa suitzarrek, inperialek, espainolek eta Eliz Estatukoek, elkar harturik, armada frantse-
sa Alpeen handikaldera erretiratzera hertsatu dute. Ekainaren azken egunak dira. Uztailean Fernando Aragoikoak Nafarroaren inbasioari ekin dio.

4

Ernazimentuko erregeen, oroz gain Aita Santuen aliantza-politika, batez ere Italiako hiri eta jaurrekikoak, sinesgaizki aldabera eta nahaspilatua da. Gaurko laguna biharko etsaia da beti. Edozein eta edozer sakrifikatzen da momentuko interesen alde. Leialtasunik edo emandako hitzaren baliorik ez da ezagutzen. Badago pasarte bat Mororen *Utopia*-n, estreinako irakurketan irakurlea zur eta lur uzten duena txunditua. Konturatzen den arte Mororen seriotasuna ironia ingeles hutsa dela. Utopiarrek, dio, auzo herriekin eginiko hitzarmenak ez dituzte izenpetzen. “Aburu horretaratu dira bereziki ikustearekin zein zintzotasun gutirekin urrungo lehor haietan printzeek begiratzen dituzten beren kontratu eta hitzarmenak”. Zertarako sinatu eta zin egin hitzarmenak, gero ez gordetzeko? Baina holako jokabideak urrungo leho-

rretakoak dira, turkoenak edo. Kristau herrietan hitza hitza da eta hitzarmenak sakratuak. Eta printze kristauren batek emaniko hitza inoiz gordetzen ez badu, Aita Santuak gordetzera behartzen du. “Europar, jakina, Kristau-fedea eta erlisioneak nagusi diren eskualdeetan oroz gainera, kontratuetako hitza guziz saildua eta hautsiezina daukate: eta hori zor zaio, printzeen beren bihotz on eta zuzenari alde batetik (!), Pontifize Nagusien edo Eliz Buruzagien larderia beldur-garriari bestetik (!!); hauek, alabaina ez dute lehenik berek deus hitz emaiten non ez duten gero artotoki hura betetzen (!!!). Beste printze guzietan agintzen ahal diete orduan, hitz emanak oro, gisa guziz begira ditzaten eta iheska dabiltzanak berriz hertsatu ditzakete, elizaren gaztiguetan eta beren larderiaz”...

1513ko otsailean hil da Erroman Julio II.a. Ez bere proiektuaren etorkizuna –“dena lotua eta ongi lotua”– aseguratu gabe. Heriotzako ohean, hilburuko dekretu batekin zeharo debekatua eta legalki ezindua utzi du Pisako Kontzilioaren konbokatzaileetako inork (kardinalen alderdi profrantsesa) hurrengo Aita Santuaren hautaketan parte hartu ahal izatea. Eta bulda batekin Jainkoaren eta munduaren aurrean legitimaturik utzi du Fernando Aragoikoaren Nafarroaren konkista.

Fernando Katolikoaren erlijioaren baliapenez bezainbatean politikarako (tradizio bilakatuko da Espainian), aski goiz erreparatu du Machiavellik, bere garaian behatzaile fina beti: “erlijioaren aitzakia erabiliz, debozioz jantzitako gogorkeriaz baliatu zen mairuak erreinutik bota eta haiengandik libre geratuz. Ekintza hori baino gauza ankerragorik eta era berean harrigarriagorik ez dago aipatzerik. Erlijiozko estalki berdinez, Afrikari eraso zion ondoren. Italia konkis-

tatzeari ekin zion gero, eta oraintsu Frantziari oldartu zaio [Nafarroari alegia]” (XXI, 1513an idatzi du *Printzea*).

Aita Santu durduzagarrri bat da “Nafarroaren egiazko konkistatzaile” hori, Julio II.a. Eskrupulurik ezertan ezagutu ez duena. “Grina doilorren esklaboa” iritzi dio Erasmok; “odol zurruteroa” Luterok (“Blutsäuffer” – *An den christlichen Adel deutscher Nation*); Machiavellik “espiritu diabolikoa”, baina zorzea izan duena bere kanpainenetan. “Julius II. Aita Sainduak, oldarka jokatu zuen bere ekintza guztietan (*impetuosamente*) eta araberako egoerak suertatu zitzaizkiolako, beti asmatu zuen (*sempre sortì felice fine*)” (XXV. Kap.). Garaiak eta garaiko kondizioek ahaldu zioten arrakasta. Bestela, haren taktika maltzurrek, traizioek, manipulazioek, aliantza apurtze eta berritzeek, ez ei zioten balio izango luzarora. Ernazimentuko gizona izan da. Ernazimentu erromatarreko Aita Santua.

Gerra hauek aspaldi ahaztu zituen munduak. Oste espainolek Nafarroa inbaditu duten egunetan, Michelangelok Kapera Sistinoaren bigarren fasean dihardu buru-belarri; Domu Santurako bukatua izango du lana. Rafael Sanzio, Atenasko Eskola amaitutzak emanda, Julio II.aren ohoretan Madonna Sistinoa pintatzen ari da. Aita Santu hori bera Rafaelen eta Michelangeloren potretengatik ezagutzen dugu gaur, ez haren batailengatik. Dena ez baita gerrak eta eskumikuak izan. Julio II.a artearen mezenasa eta artean aditu argia izan da. Orain Apolo Belvederekoa eta Laokoonte bezala miresten ditugunen balio paregabea betan ezagutu du berak, eta bere diruaz erosi eta Vatikanoko Museoetarako eman. Hala egun haietako beste hainbat aurkikuntza arkeologikoren balioa ere. Bramante ekarri du Erromara eta makina bat proiektu enkargatu, hiria urbanistikoki eraberritzeko (Via Giulia izena

darama kale guztiz berritu batek), elizak eta jauregiak eraldatzeko (Palazio Vatikanoa bera), batez ere San Pedro basilika erraldoia eraikitzeko, Antzinateko monumentu galantenak gainditu behar zituena, bertan Julio II.aren beraren mausoleo galanta ere kokatzeko. Haren mezenasgoari zor zaizkio Michelangeloren pintura zein eskultura bikainenetakoak, *stanza* edo egongietako Rafaelen pinturak, etab.

Julio II.ak mesedetu duen eliza bat, kuttun zuena, Santa Maria del Popolo izan da, familiaren eliza bezala zeukana (hor dago Girolamo Basso della Rovere hobiraturia). Piazza del Popolo zabal ederrean dago, turisten gozalekua kafe bat hartzeko; ganean Monte Pincio, horko etxe batean hil omen baita Azpilkueta, Prudenek esan digunez. Eliza horretarako pintatu du Rafaelek Aita Santu zahar, melankoliko, meditatiboaren erretratu famatua, Londresko Galeria Nazionalean dagoena orain, egiazko Aita Santua ahantzazazten diguna, lohi eta barbaroa. Turistak Bramanteren korua, Pinturicchioren freskoak, Sansovinoren hilobi-monumentu biak, Bernini, etab., ikus ditzake bertan gaur; oroz gain sekulako bi Caravaggio (beste halako bat hau ere, basapiztia eta artista jeniala batera – baina honekin XVII. mendera egiten dugu salto). Plaka txiki batek, Luterok Erromako egotaldian eliza honetan meza eman izan zuela jakinarazten digu.

5

Martin Lutero agustindar fraidea hilabetez egon da Erroman. 1511ko Eguberri bezperan heldu (M. Matheusen hipotesian), eta 1512ko apirilean itzuli izango zen Erfurteko komentura. Nafarroako konkistaren bezperetan. (Garaien eta gertaeren ideia bat egiteko). Lehentxeago, 1509an, Erasmo, kanoniko agustindarra bera, lau hilabetez egoiliartu da Erro-

man. Biek hurbildik ezagutu dute Julio II.a eta haren ingurugiro erromatarra. Bata bestearekin haserre etsaiturik bukatuko badute ere, Aita Santu odolzalea biek berdintsu epaitu dute. Biek oso bestelako ikuspegiz, hala ere, diferentziak oharitzea argigarria baita. Luterok Ernazimentu erromatarra ez du ulertu (ez bedi ulertu haren akats bezala). Ernazimentu erromatarra fenomeno erlijioso, kultural, politiko, sozial-psikologiko, militar konplexua da. Gehien ezagutzen dena Aita Santuen eta kardinalen amoranteen istorioak eta afera sexualak dira: nola euren ohaideak figuratu bakarrik egingo zuten senarrekin ezkontzen zituzten, sasiko haurrei legezkotasun itxura emateko (bortak izaki ezingo baitzuten karrerarik egin ez Elizan ez gizarte zibilean), etab. Baina ez dirudi inportanteena. Anbizio familiarrak eta familien arteko norgehiagoka eta gatazkak, oturuntza pozoitu eta asasinatoak ere Ernazimentu erromatarra ulertzeko faktore bat dira. Substantzialagoa, alabaina, Aita Santu guztion politika erlijioso/irreljioso, kultural zein militarren gakoa apika, Erromaren mitoa izan da, Erroma berregiteko xede etenik gabe tinko jarraikia – “renovatio Urbis” (“restauratio imperii”). Avignongo palazioetatik itzulerakoan, Erroma miserable zabartu bat aurkitu dute. Berrogei mila biztanle ingurukoa, ibai zikinaren ertzetan pilatua. Kale estu, jauregi zahar pitzatu, eliza arrakalatuak, dorre bakan batzuk jauntxoan gotorleku bilakatuak. Behialako hiriaren area gehiena harri zahar eta hondar pila bat. Koloseo inguruetan behiak eta baratzeak, Santa Maria del Popoloko alde guztia belaze eta malkaldi. Bi hilabeteko bidea –Alpeak gurutzatuz– negu gorrian eta oinez ibili eta gero, Porta Flaminia edo Popolotik sartu ahala, Luterok, belaunikatu eta lurrari muin eman bide dio “bedeinkatua zu, martirien Erroma santu!” intzirika. Hogei-

ta zazpi urteko fraide agustindarra zeharo fededuna da, eta teologoa da. Halakoaren begiekin eta bihotzarekin ibili ditu Erroman erromesaren ohiko estazioak, beti oinez: San Paulo Extramurosen abiatu, San Kalistoren katakonbetara jaitsi, belauniko igo ditu Eskala Santuko hogeita zortzi harmailak, bakoitzean Aita Gure bana errezatuz (aita hilaren arimaren salbazioaren alde), Santa Maria Maggiore maiestatzekoa, San Pedron bukatzeko, orduantxe basilika zahar konstantinotarra eraisten eta berria eraikitzen ari zirela. Hunkitua eta fedean indartua itzuli da fraidea Erfurteko komentura. Baina ikusi-mikusi dituenak lanean aritu zaizkio kolkoan, antza. Urte gutxi barru, Erroman “deabruak kakagin duen” Aita Santuaren gaizkiesale purrustariena bera izango da. Ernazimentu erromatarra gabe (ez indulgentzien abusuak bakarrik) protestantismoa ez da konprenitzen. Protestantismoa ulertu gabe –Parisek balio du meza bat–, ezta Nafarroako erresumaren azken hondarren eta familia nafar askoren patua ere. Pasadizo bat gomutatzea lizentzi badut: 1967/68an izango zen, Frankfurten, liburu denda bateko apaletan kuskusero nenbilela, jaun elegante buruzuri bat hurbildu eta solasean hasi zitzaidan aldamenetik, dendako nagusia nonbait. Atzerritarra nintzena bistan zegoen, eta jakin-mina piztu zitzaion. Hau eta hori aipatu genuen, eta euskalduna nintzela esan nionean, gizonak, pozak zorutzen eta espantuka, bera ere baietz, bota zidan. Higanota zela, Luis XIV. (autokrata txit ilustratuki intolerante!)aren garaian Frantziatik Alemaniara emigratu beharra izan zutenetakoa. Eta, nire harridura bururainotzeko: Navarre zuen bere deitura!

Anekdotekin jarraituz. Kolonian, katedraletako beiratilen erakusketa batean, hara non topatzen dudan bat-batean Zakarias profetaren irudia Nafarroako hamar ezkutu distiratsuk

inguratua, Troyesko St. Urbain kolegiata-elizako beiratiletako batean. Teobaldo Champagnekoak 1270ean dohaindua eta 1270-1275 artean egina. Idatzi nuen argazki bat eskatuz UER d'Art et d'Archeologie-ra Parisen (argazkien monopolioa beraiena omen da eta erakusketan galarazia zegoen fotografiaztea), erantzunik ere ez nuen jaso. Nafarroako historiarekin maiz topatzen zara. Evreux, Louvre, Reimsen. Nurenbergeko gaztelu inperialean, kaiserraren eserlekuaren gain-gainean goian, Nafarroako ezkutua ikustatzen duzu (baina atzo goizekoa ematen du). Malta, gotorleku erraldoi bat da La Valletta hirizahar osoa. Ur bazterrean paseatzen zoazela, dorre sendo bakarti baten silueta deigarriak erakartzen zaitu. Maitek beti hartzen dituen oharrek diotenez, San Julian talaia hori 1658 urtean Fr. Martin de Redin Maestre Handiak eraiki zuen. Nafarkumeren bat errezela daiteke San Joanen Zaldunen Ordenako deizio horrekin.

Protestantismoari beraiek Erreformazioa deritzote, eta konfesio horretako elkartasuna Eliza Ebanjelikoa da. Ebanjelio gutxi eta paganismo asko ikusi du Luterok katolizismo erromatarrean: ez inmoralitatean soil, baizik teologian bereziki. Protestantismoa (Lutero, Münzer, Zwingli, Kalvino...) paganismo horri guztiari erradikalki uko egin eta kristandadea ebanjelioen eta San Pauloren fede jatorrera itzularazteko proiektua zen. Hortik hara, berehala Europa iparraldea gerra zibiletan sutua ikusten dugu, hegoaldea kontrarreforman ilunpetua. Ernazimentua itoa geratu da Europan. Modernia esaten duguna, erreazio antiernazentista biolento gisa hasi da. Franko ezaguna da, baina merezi du aipatzea beste behin ere Nietzscheren protesta: “El cristianismo nos arrebató la cosecha de la cultura antigua, más tarde volvió a arrebatarnos la cosecha de la cultura islámica (...) – Los alemanes han

arrebatado a Europa la última gran cosecha cultural que Europa pudo recoger – la del Renacimiento (...). ¿Qué ocurrió? Un monje alemán, Lutero, fue a Roma. Ese monje, que llevaba en su cuerpo todos los instintos vengativos de un sacerdote fracasado, se indignó en Roma contra el Renacimiento... En lugar de comprender, con la más profunda gratitud, el enorme acontecimiento que había tenido lugar, la superación del cristianismo en su propia sede –, lo único que su odio pudo extraer de ese espectáculo fue su propio alimento (...). Lutero vio la corrupción del papado, siendo así que precisamente lo contrario podía tocarse con las manos: ¡En la silla del papa no estaban ya sentados la vieja corrupción, el *peccatum originale*, el cristianismo! ¡Sino la vida! ¡Sino el triunfo de la vida!” (*El Anticristo*, 60 eta 61). *Moralaren genealogia*-n berriro: “Zein atera da garaile, Errroma ala Judea? (...) Erromak hondoa jo du, inolako zalantzarik gabe. Nolanahi ere Errenazimentuan ideal klasikoaren, gauza guztiak balioesteko era noblearen berpizte distiratsu eta kezkarri bat izan zen: Errroma bera higitu zen begiak irekitzen dituen itxuraz hildako baten gisara (...), baina berehalaxe triumfatu zuen Judeak berriz ere errotik plebeioa (ingeles eta alemaniarra) zen erresuminaren mugimendu hari esker, zeini ematen baitzaio Erreforma protestante izena”.

Nietzscherekin ados egon gaitzke, edo ez; edonola ere, Antilutero ez tentsu honek Lutero ikusi duen gauza bera ikusten du Ernazimentuan: paganismoa – ederraren ederra Nietzscherentzat, zatarraren zatarra Luterorentzat.

6

Erasmus humanista da. Esan gura du, berak Ernazimentu erromatarrean nahigabez ikusi duena, ezin izan dela pa-

ganismoa. Julio II.a eta haren ingurua behatu eta pairatu eta, mindurik Erroma utzi duenean, Ingalaterrara jo du bake eta espiritu bila. Bidean eta Tomas Moro humanista adiskidearen etxean ostatzeko egon den atsedean egunetan (1509) *Eromenaren laudorioa* idatzi du (“Encomium moriae”, os-talerraren More izenarekin jolas eginez). Inoiz idatzi diren panfleto guztietatik eragintsuenetako bat, Zweigen esanean, propaganda protestanteari materiala ugari oparitutako diona. Erasmo bera apezkumea izaki, Aita Santukumeen istorioek ez du ematen gehiegi inpresionatu dutenik. Kardinal eta apez-zen metrese kontuak ez zaizkio interesatu, antza. Alexandro VI.ak bere seme Cesare hamasei urtekoa Iruñeko gotzain izendatu izana (mezako eta konfesioko apaiz izan beharrik gabe) logika baten barruan konpreni zitekeen, ikasketak garestiak baitziren –inork baino hobeto zekien hori Erasmo haur txiroak–, eta azken batean gotzaingoko benefizioak Borgia gazteak Perugiako unibertsitatean Zuzenbidea estu-diatzeko beka antzera zeuden pentsatuak, besterik ez. Kuria bestela franko libertinoan bertan arau eta ekandu on guztien kontrariotzat ikusia egon arren, aitak Cesare gaxtea, ageriki bastarta, kardinal egitea, Della Roverek bere amorrualdi so-natuetakoa bat harrapatzeko kausa izan da, inbestidurako ze-remoniei probokatzailleki muzin egingo baitie. Erasmori ere ez zaio ausaz dotore-dotorea iruditu. Behintzat, Aita San-tuak kardinalaren izendapena opa egin diezaionean, kortesa-nia guztiz, baina uko eginen dio berak. (Mundua ero dago, zer nahi duzu egitea...)

Erasmoren ziztada satirikoetan erraz suma daitezke ho-lako gorabeherei zehar-begiradak, baina oro har nahiago izan du bere kritikak tonu inperpersonalagoan jalki. Miseria indibidual gizatar gizatarregiek baino gehiago, Eliz erakun-

dearen mundutarkeria guztizkoak samintzen du. Artzainen lana ardiak zaintzea da, baina Elizako artzainek “ardien ardua Kristori berari uzten diote”, beraiek bestelako negozioak zaintzen jarduteko. Gotzainek eta kardinalek eta, “txi-ro ziren apostoluen ordezeko direnek, zertarako behar dituzte ondasunak?”. Munduko jaun eta jauntxoek boterea, aberastasuna, erosokeria bilatzen dizute. Mundutarrak dira. “Printzeen bizitza-mota hori, egia esan, zehatz-mehatz imitatzen dute, aspaldidanik eta agian hobetuz gainera, pontifizeek, kardinaleek eta apezpikuek” (LVII). “Orain Kristoren ordezeko diren pontifize gorenak, baldin haren bizitza, hau da: txirotasuna, nekeak, doktrina, gurutzetza, munduaren gutxiespena, imitatzen saiatuko balira (...), zer egongo litzateke lurtean hori baino atsekabetsuagorik? Nork erosiko luke postu hori [Aita Santuak hautatzeko praktika arrunta] bere ahalmen guztiez baliatuz: eta erosi ondoren, nork defendatuko luke ezpata, pozoin eta beste edozein bortxakeriaz?”. Eromenaren gogoetak dira. Eskerrak, izan ere, Elizako pontifizeak eroak direna. Zeren-eta: “Jakituria hauen buruetara behin bakarrik helduko balitz, zenbat eta zenbat erosotasun ez lieke kenduko? (...) Hainbat ondasun, hainbat ohore, hainbat ahalmen, hainbat garaipen, zenbat kargu, zenbat onura, zenbat zerga, zenbat indulgentzia, hainbat eta hainbat zaldi, mando eta zerbitzari, zenbat plazer ez lituzkete galduko? Ikusten duzue zenbat salerosketa, zenbat uzta, nolako ondasun-itsasoa laburbildu dudan hitz gutxitan”. Bestalde, jende askorentzat primeran dator pontifizeak eroak izatea, bera erokeria horretatik bizi baita. Kalamitatea litzateke Elizako buruzagiok jakituriara itzultzea. “Ez da komeni ahanterik horrekin zer gertatuko litzatekeen: hainbat eta hainbat eskribau, kopista, notari, abokatu, eragile,

idazkari, mandazain, zaltzain, bankari, lupar, hitz zantarrago bat ere esatear egon naiz, baina beldur naiz zuen belarrietarako gogorregia ez den izango. Hau da, gizaki-mordo ikaragarri bat, Erromako Aulki Gorenarentzat zama handia dena (barka nazazue erratu egin naiz-eta, fama handia esan nahi nuelako), gosez hiltzera beharturik egongo litzatekeela, hain zuzen ere”.

Gogorrena, hala ere, gerra eta Elizak gerra egitea gaitziritzen du: “Pedroren ahotsak Ebanjelioan dio: Dena utzi dugu bertan behera eta jarraitu egin dizugu, eta aita santuek ulertzen dute Pedroren ondare hori soroak, etxaldeak, errentak, iragan-sariak eta jaurerriak direla. Beraz, Kristoren gara bihotzean pizturik, ezpataz eta adoreaz burukatzen dira ondasun hauen defentsan, Kristau odol asko isurita eta us-terik orduantxe defendatzen dutela eliza (...). Elizaren etsai kaltegarriagorik egongo balitz legez pontifize donge eurak baino, hauei zor baitzaie Kristo isilean desagertzea, euren legeekin kateatzea, interpretazio bortxatuekin faltsutzea eta bizitza kirastuaz hondatzea. Gehiago oraindik, Kristau eliza odolaz eraikia, odolaz sendatua eta odolaz hedatua izan zenez, bereak bere erara babesten zituen Kristo orain hilda balego legez, pontifize hauek ezpataren indarrez daramazkite arazoak. Eta gerra, hau guztia izan arren, hots: gizakiei baino basapiztiei hobeto doakien gauza zeharo ikaragarria, poetek Furien asmakizuntzat jotzeraino horren besteko erokeria, ohitura guztiak usteltzea berarekin dakarren izurritea, ondoen zuzentzen dutenak lapurrik handienak izateko besteko bidegabekeria, Kristorekin inolako zerikusirik ez duen gauza guztiz dongea, aita santuek, hala ere, gauza guztiak uzten dituzte horixe bakarrik egiteko. Eta beraz, agure zaha-

rrak ikus ditzakegu [Julio II.ri alusioa]¹ gazte baten adore kementsua erakusten, gastuen kontuen ardurarik hartu gabe, ahaleginik handienek ere nekatu gabe eta ezerk ere desbideratu gabe ari direla jokatzeko legeak, erlijioa, bakea zein edozein giza arazo goitik beheraino nahastu behar dutenean” (LIX). “Ez al da gerra, balentria laudatuenean soro eta iturria? Baina hala ere zer eroagorik...” Alde biei “irabazia baino galera gehiago” ekartzen diena beti. Harentzat, bestelako eskandalutxoek gainera, eskandaluen eskandalua gerra da, espiritu kristauarekin elkartezinena. Kristauen artean gerrak ez du inolako zentzurik. Printze kristauak erabat desterratu behar dute gerra euren artean. Munduko kausarik nobleenak ere (eta denek uste izaten dute beren kausa halakoa dela) ez ditu justifikatzen gerrak eragiten dituen kalte moralak eta materialak. Eta Erdi Aro guztiko doktrina komuna zili-purdikatzen duen errematea: gerra justurik ez dago. Batetik, gerra guztietan zerikusirik ez duen herri xumea delako sufritzen duena. Bestetik, gerrak gizon-emakumeak eta bereziki gerrarako prestatzen direnak berak piztia egiten dituelako. Gerra egiten ikastea basakeria profesionala ikastea da. “If you detest robbery and pillage, remember these are among the duties of war; and that, to learn how to commit them adroitly, is a part of military discipline” (*Querela pacis* ingelesez bazarrik daukat eskura momentuan). Gerra justuena baino bake

¹ Julio II.a, ile zurien eta karguaren duina ahazturik, kapitain gazte suharrenak bezalaxe nahastu da batailetan zalapartaka. Aita Santu zaharraren eromen gerreroa ikusita, gazteluko harresiak ere behetik goiti su eta fu eskalatzen tematzeraino, “quanto più costui invecchia più impaza”, esan bide du Bernardo Dovizi da Bibbiena kardinalak (“zaharrago eta eroago”).

injustuena hobe: “there is scarcely any peace so unjust, but it is preferable, upon the whole, to the justest war”.

Erasmoren testuotan eta garai honetako literaturan, Er-di Arotik irteeran, hainbat lekukotasun idorotzen duzu nola ideia nazionala eta nazionalismoa indar ideologiko, politiko eta militar bat zen jada Europan. “Subiranoak” erregeak dira noski. Erregeok, dio Erasmok, edozein estakuru asmatzen dizute gerra egiteko. Beste aitzakiarik otutzen ez bazaie, aldameneko auzoari auzoa delako erasotzen diote; hots, bes-telako nazioa delako. “They will make use of the names of foreign countries, artfully rendered odious to the people, in order to feed the popular odium, till it becomes ripe for war, and thirsts for the blood of the outlandish nation, whose very name is rendered a cause of hostility”. Aurrena propa-ganda egiten da gudukatu nahi den nazioaren aurka. Kan-paina horretan Elizak gogotik laguntzen du (komunikabide modernoak zabaldu arte, Eliza izan da iritzi publikoa pro-duzitzeko aparatu nagusia). “Among the english, the clergy fulminated from the pulpit against the french; and among the french, against the english. They all united in instigating to war. No one among the clergy exhorted to peace”. Julio II.aren programa Italia “barbaroetatik” askatzea zen (barba-roak batez ere frantsesak ziren harentzat), eta “Italia italia-rren esku” egotea. Hala ulertu du haren inguruak ere. Hil denean, “morto è quel che da Franza/ ha Italia liberata” kantatu da herri kanta batean. Machiavelliren *Printzea*-n az-ken kapitulu maiz aipatua ezaguna da: “Italia barbaroengan-dik libratzearren eskaera” – Italia “orain atzerritarrek ezarria duten uztarri hain gorrotagarritik” askatu eta nazioa batu-ko duen printzearen hel-eskea. [Dena dela, engoiti Machia-velli abertzale eta nazionalista da, baina ez XIX. mendekoa,

eta “nazioaren” kontzeptu finkaturik gabe da nazionalista; hots, italianista da, Italiaren nazionalista. Edo, hobeto: “Il Machiavelli (...) adopera la parola nazione in un senso tutto municipale e cittadino: c’è la nazione fiorentina, per lui, come c’è la nazione sanese [Sienakoa], e la nazione pisana” – quattrocento eta cinquecentoan guztiz ohiko zen moduan, ik. L. Russo, *Machiavelli*, 1974. Nazionalismoa garbi dago, nazioaren kontzeptua gutxiago; h. d., usu “nation”, “pays”, “patrie” balioberdinki erabiliko dira (“Si mon zèle au pays vous semble criminel...”, Corneille, *Horace*), eta berbok ez dira derrigor gaur bezala mugatzen].

Garaia ulertzeko: Inperio erromatarraren hondarren gainean, Birjaiotzearen tenorea da eta aldi berean Estatu sistemaren sorrerarena Europa modernoan. XV. mendearen buru aldera, Portugalak bere bidea itsasoan hartua dizu, Espainiak, Frantziak eta Ingalaterrak, bilakaera odoltsu luzearen ondoren, batasun estatala ezartzen dihardute, monarkia gotorretan ardatzuak. Potentzia nagusia Frantzia da, 15 milioi biztanlerekin; Espainiak 6 milioi, Ingalaterrak 3 milioi. Inperio alemana biztanletan Frantziaren berdina edo handiagoa dateke, baina errealitatean “inpotentzia” politiko eta militarra da, printzeritxo eta hiri burujabeen elkartasun laxo bat baino ez baita Habsburgotarren buruzagitza nominalaren pean, leinu horrek dominio inperial trinko samar bakarra Alpe austriarretan bildua zuela. Beraz, Frantzia guztien aurka eta guztiak Frantziaren aurka, aliantzak egiten, desegiten, berregiten: hori da egoera Europan cinquecentoaren hasieran. Ipar Italia oparoan eta Mediterraneoan zein oilarrago altxatu da nazioon –monarkion– artean lehia nagusia (“Italiako gerrak”). Ez zioten deus laguntzen, batetik Inperio erromatarra berregiteko grina Aita Santutarrak, beste-

tik Estatu modernoen garramura hegemonista espantsionistak: norgehiagoka horien zurrunbiloan galdu da Nafarroako erresuma.

7

Erdi Aroan filosofia ez da politikaren arloaz asko arduratu. Ernazimentua eztanda bat bezala izan da horretan ere. Aurrena Florentzian (Alberti, Salutati, Bruni), Europa osoan gero, errepublikaren gobernamentuko edo printzeen ispiluko traktatuak erruz loratu dira ipar zein hegoan (klasiko bat Erasmoren *Institutio principis christiani* da, 1516). Literatura ernazentista politikoan sorkuntza utopikoez ematen dute atentzioa. Interesgarrienak Campanella eta Mororenak dira dudarik gabe. Campanella fraide dominikarra zen (Savonarola bezala), Tomas Moro San Frantziskoren Hirugarren Ordenakoa. Nafarroaren konkista eta San Inazio, San Frantzisko Xabier, Aita Santuaren buldak, kalvinismoan errefuxiatzen den erregina nafarra... Mundu zaharra krisian dago, baina Erdi Aroan bezalatsu Ernazimentuan ere “con la iglesia hemos dado, Sancho” bazter guztietan. Aro Zaharraren aje guztiekin eta bizio berriekin ari da sortzen Aro Berria.

Xabier Andonegiren hitzaurrean Tomas Moreoren *Utopia*-ri (1515-1516), goititzen ari den Estatu territorial/nazional berri, mugak zabalduzale, ondorioz nekagabe gerrazaleaz, hau irakur dezakegu: “Bere garaiko Estatu erreala zerbait ustela agertzen zitzaion Morori, klase aberatsenak bere interesak babesteko, eta ez denonak, bereganaturiko botereari dagokion bezala. Hala iritsi zen Moro, momentuko krisialdi sozial ekonomiko eta finantzarioa ulertzeko, Utopiaren lehen partean eskaintzen dizkigun analisiak egi-tera, lehenbizikoz fenomeno sozio-ekonomiko modernoan

argibide garrantzizkoa emanez (...). Platonen ildotik Morondo jabetua zegoen bere garaiko ‘politika errealar’ zerion ustelkeriaz, hala nola: horren ohiko metodoak erabiliz ezinezkotzat jotzen zuen nahi adinako aldakuntzarik suertatzea, asmo espansionista gutiziaz jositakoei uko egiten ez zitzaizen bitartean. Aldiz, hauxe izango litzatekeela bakerako lehen urratsa; berau emanez bakarrik printze batek erakuts dezake boterea jakinduriarekin uztartzeko duen nahiaren zintzotasuna. Beraz, baldintza hau betetzea, horixe da Mororen Utopiak errepublikan erakusten diguna lehenengo eta behin. Hori dela eta jarri diezaguke gero, egin behar liratekeen beste hainbeste gauzen ispilu gisa Utopia irla zorionsua, gizakiak zein gizarteak beren izaera jatorra bertan ezagutu dezaten, eta miretsiz, horren gogoia bere baitan susper dezaten. Eta kontura daitezten, halaber, espirituaren ahalaz soilik eraiki daitekeen mundu berri hartan zer balore eta zer errealtate diren, zurtoinaren gisa, hura funtse dezaketenak”. Europan sortzen ari den Estatuak zer zen, eta zer izan zitekeen, auzkezten du Utopiak. Morok, antitipoa ederretsiz, Estatu moderno berriaren tipoa errotik kuestionatzen du. Baina ez Inperioa (Erdi Aroa: Elizaren poderioa, etab.) hobetsiz.

Gure artean jende askok duen Inperioaren irudia guztiz bestelakoa baita –botere zentral handia, etab.–, ez da alferrik egongo Machiavelliren pasarte batzuk hona ekartzea, ikusarazteko zergatik ez den Inperioa Moderniako indar eratzaille erabakigarria, eta bai Estatu berriok: “Alemaniako hiriak oso libreak dira. Inguruan, beren lurralde gutxi dute. Enperadoreari, nahi dutenean obeditzen diote eta ez dira haren beldur. Ezta inguruko beste edozein handikirenik ere, hiriak sendotuta egonik erasotzeak zailtasun handiak dituela guz-

tiek ikusten dutelako. Hiri haiek denek dituzte zanga, harresi eta nahikoa artileria. Beren soto, ganbara eta biltegieta urtebetez nahikoa jan-edana eta sua izateko adina gauza gordetzen dute. Gainera, hiriaren bizitzarako beharrezko diren lanak urtebetez gutxienez langile jendea okupaturik edukitzeko adinakoa da. Arazo militarrek ere ardura osoz aztertu eta saiakuntzak egiten dituzte guztiak prest egon daitezen” (X). Inperioa, hortaz, eskualde eta hirien menpegabetasunik handienaren sistema da; buruzagitza zentral ahul-ahularena. “Inperialismoa” ez da Inperioarena. Estatu edo monarkia modernoarena da: botere zentral estua, mugetatik harako hedatzea eta dominazioa, eskualdeen kontrola, gizartearen uniformizazioa. Estatu moderno horrek ekarri du Erasmok salatu duen nazionalismoa, “the hostile distinction of different nations as natural enemies, because they are separated by place, and diversified by name...” Hots, nazionalismoa zentzurik txarrean, nazionalismo armatua, konkistatzailea. Eta armekin –“que siempre la lengua fue compañera del imperio”– nazionalismo edo “inperialismo” linguistiko eta kulturala. Nafarroa konkistatzeko planak lantzen ari den erregerari Nebrixak idatzi dion legez: “que después que vuestra Alteza metiese debaxo de su yugo muchos pueblos bárbaros y naciones de peregrinas lenguas, y con el vencimiento aquellos tenían necesidad de recibir las leyes quel vencedor pone al vencido, y con ellas nuestra lengua, entonces, por esta mi arte [Gramatika], podrían venir en el conocimiento della (...) los vizcainos, navarros...”

(Nazionalismo politikoarekin nazionalismo linguistikoak piztu dira. “The growing nationalism in sixteenth-century literature, the claim that each of the vernaculars was just as capable of eloquence as Greek or Latin, naturally absorbed

rhetoric into what might today be classified as linguistics. The *Questione della lingua* produced works which proclaimed their native tongue to be supremely suited to rhetoric and poetry. So Joachim Du Bellay devoted the first book of his *Deffence et illustration de la langue françoise* (1549) to this topic...”, ik. *The Cambridge History of Renaissance Philosophy*, 1988, 717).

8

Hizkuntzaren kontua aipatu dugunez, Azpilkuetaren ama-hizkuntza dela eta, Frantzisko Xabierkoak hil aginean euskaraz hitz egin omen zuelakoa ahomentatzen du Prudenek. Stefan Zweigek kontatzen du Erasmok ez zuela bulgarean mintzatu nahi izaten, latinez bakarrik mintzatu zela beti. (Erroman hura eskandalizatu duena, apaizek latina zein gaizki hitz egiten zuten izan da). Humanistek aristokrazia berri gisako bat eratu zuten, espirituarena, euren arteko komunikazioan bulgare profanoa erdeinatzen zuena. Hiltzeko puntuan, ordea, azken hitzak, “lieve God!”, haurtzaroko behe-deutsch (nederlandera) barbaroan suspiriatu ei ditu. Antzeko kasuak hamaika bider entzun izan ditugu.

Erasmus humanista da. Eskolastikaren eta XIII. mendeko autoritate ukiezinen katedral beneragarria jendearentzat aspergarri samartu denean, jakin-min eta ausardia berriak supiztu dira hirietan (ezen ez unibertsitateetan), antzinako literaturan ustekabeko perlak deskubritzeko gauza izan dena. Jakinduria jentilaren altxorra miretsi da. Nortasun pagano askoren lerdentasun morala hauteman da. Paganismoan eta kristautasunean oposizioa baino gehiago osagarritasuna sentitu da (“San Sokrates”). Antzinako literaturaren berrizteak pitxi barregarririk ere ekarri du, ekarri. Erretoriko erromatar

batzuen Julio II.aren konparazio hiperbolikoak Jupiterrekin, edo Kristoren pizkundearen eta Zesarren triunfoen parekatzea, Erasmok *Zizeroniano*-an ridikulizatzen dituen adibideak dira. Baina Erasmok, ekarpen paganoak itsu-itsuan kanonizatzen ez dituen moduan, alboratu egiten du kristautasunaren burujopea egiaren eta zuzenaren eskusiba berak ukaitekoa. Kristautasunaren kontzeptu libre berri bat hozitu du. Kristautasuna egia da: beraz, egia non, han dago kristautasuna; egia non, han kristautasuna dago. Kristautasuna ez dago Eli-zan bakarrik. Atenas edo Erroma paganoetan ere bai.

Erasmus humanista kristaua da. Kristautasuna teologoen espekulazioetatik praktikara, gizon-emakumeen antisietara, eraman nahi lukeena. Eskolastika eta eskolastikoak ez ditu maite. Filosofoez burlatzen da: “ezertariko ezer ere jakin ez arren, guztia dakitela aldarrikatzen dute handiki” (LII). Teologoz burlatzen da orobat, “teologo argituez” bereziki, Ahalguztidunaren inkarnazio modu posibleez disputatzen imajinatzen dituela: “Jainkoa bat egin al zitekeen emakumearekin, deabruarekin, astoarekin, kalabazarekin edo sukariarekin? Orduan kalabaza batek nola hitz egingo zion herriari, nola egingo zituen mirariak eta nola izango zen gurutziltzatua?” (LIII). Kristautasuna barregarria da zentzugabeko metafisiketan barrena menturatzen denean. Horretan Lutero teologiako doktoreagandik ez hain urrun, edo oraingo Askapenaren Teologiaren antzera, Erasmo humanistak kristautasuna dogmatik federa itzularazi nahi zuen, sasirrazionalismo teologikotik bertutera –zentzu nahiko epikurotarrean!–, tolerantziara, karitatera. Kristautasunaren ekarpen posible partikularra Erasmok bakean ikusten zuen, gerraren abolizioan betiko. “Erasmok, ez gehiago eta ez gutxiago, teologia ofizialaren alderantzizkoa eskaini nahi zuen,

erabat kontrajarria zen beste batez ordeztu” (F. Rico). Horregatik, bai katolikoek eta bai protestanteek maite zuten. Baina bietako batek ere ez zion segitu.

Bestelakoxe estiloa eta tonua nabaritzen duzu Azpilkueta irekitzean. Bestelako sentsibilitatea, bestelakoa jitea. Gure nafarra teologo morala eta jurista da, eta eskolastikoa erabat, nola idazkeran hala pentsamenduan. XX. mendean oraindik ezagutu ditugun halakoek euren (San Tomasena baitzen!) jakitate sakon-sakon eta sendotzat ukan ohi zuten, txolinke-ria modernoan kontrara. Azpilkuetak Erasmoren metodo filologiko kritikoari axalkean geratzea egozten dio, hostoak eta loreak ikertzen aritzea sustraien eta orpoaren orde. Valla, Vives, maisu humanista handiak, pentsamendu berriak arriskatzeko ausartak, ahalkerik gabe jaukiko ditu. Azpilkueta bera, kasuista hutsa izan arren, ez da arriskatzen duteneta-koa. Haren sakona eta sendoa bere tesiak autoritate batean, eta beste eta beste eta beste batean amarratzean datza. Otserrian alderrai edonon, horrela harresitzen digu nafarrak, berari erreinua galdu zion erreinuan, segurantzia (nahiz eta irakasle egon den “berrogei bat urtez, hiru Erreinutan eta bost Unibertsitatetan”). Zaila da nonbait aburu pertsonaletan norbera fidatu ahal izatea bera, kolega arrotzen konfiantza irabaztea areago, aberria eta bere buruaren ustea galdu zuenarentzat; Espainietan beti “frantsesa” kontsideratua egongo denarentzat, eta azken batean haren iritziak “frantsesarenak”. Zuhurtasunez edo, Azpilkueta antimoderno egoskorra da. Segurura jokatzeko du. Munduko erreinua abandonatu edo galdu dutenen menekotasun guttizkoarekin zerbitzatuko du zeruetako erreinua, eta Elizak dituen eta ez dituen eskubideak eta ahalak defendatuko ditu beti, Marsilio Paduakoa edo Ockham edo zeinahi gorabehera – bide

batez mundu honetako nagusia ere zerbitzatuz. Berak jakin-go zuen zein kolko zirrarez idatzi behar izan duen: “Frogatzen da zergatik Aita Sainduak beren aulkitik kentzen ahal dituen erregeak, beren erreinuen kudeatzeko hainbestetaraino lazoak direlarik, non menpean daukaten Jainkoaren herria urruntzen den betiereko biziaren bidetik: gaizkileak ezen gaztigatzen ez direno (...), hor dago arrazoia erreinu horietan erregeen kargutik kentzera behartzen duena, betiereko bizira heltzeko trabak baztertzeko gisan”... Eta zein gaizkile gaiztoagorik zismatikoak eta heretikoak baino? Lantz da “Meniaz eta Bakeaz” testua, non arras gogor gaitzes-ten baita Frantziako “Errege Txit Kristauak bere Erreinuko luthertiarrekin eta beste heretikoekin egin zuen bakea, hots, bakoitza bere gisara eta, erraten den bezala, bere kontzientziako libertatearen arabera bizi zedin”. Jolas gutxi: “badakigu heresia ez dela bakarrik krimena, baina menturaz krimen guztietarik larriena”. “Fede katolikoaren kontra doan heresia, naturaz gairik krimena da eta beraz naturaz gairik legea hausten duen krimena”. “Ez da bada katolikorik, ohointza eta erailketa baino krimen handiagoa dela heresia, ukatuko duenik (...). Bestalde argi da, bekatu guztietarik larriena, berez, federik-eza dela (...), federik-ezaren mota guztietarik gaitzena ordea, heresia da”. Tolerantzia printzearen oker politikoa da, erresuma suntsitzea asmo duten etsaiek, “bildots itxurako otso harrapariak eta Satanen aingeru izanik Argiaren aingeru bilakatuek”, maltzurkeriaz antolatua. Baina oker politikoz gain bekatu eta bekatubide da, era guztietako bekatuen bekatariak direlako luterotar heretikoak. “Ez da beraz dudarik luthertiarrek ez baldin badira gaztigatzen, bere haragiaren lizunkeriak bultzatuko dituela beren sentsualitateaz gero eta gehiago gozatzera eta deabruaren eta haren

zerbitzarien arta jarraikiek haien indarra hedatuko dutela eta Erregea bera edo behaztoparazi edo heresian sarrarazi arte ez direla geldituko”.

Gerraren zuzentasuna ez da diskutigarria nafarrantzat, sarrazenoen eta protestanteen aurka bada beregainki. (Erasmorentzat sarrazenoei irabazteko bide kristau bakarra, etsenplu ona emanaz, ez armaz, haiek garaitzea zen). Aitzitik, Azpilkuetak ohoragarritzat ematen du gerrako ofizioa. Espainolen “oldar miresgarria” eta “gerlako trebetasuna” go-resten du. “Gerlarako trebatzen” dutela alegatzen dizu herri kirol eta festa batzuen aldera. Premia larrikotzat jotzen du fedegabeen aurka Gurutzada, eta “halako gerla saindu eta handia egiteko” Aita Santuak indulgentziak salmentan jartzea –Lutero hain sumindu zuena– bidezko eta txalogarria begitantzen zaio, hala fededunen herri guztiak parte hartu ahal baitu nolabait Gurutzadan.

9

Alderatzen baditugu Azpilkueta eta Tomas Moro, gerra denaz bezainbatean esate baterako, azken honentzat hori “zinezko basakeria den bezala –nahiz ez den abere-motarik gizonak bezain usu egiten duenik–, gerla utopiarrek gaitzes-ten dute gain-gainetik”. Ez daukate ohoragarritzat gerrako egintzak: “beste herrialde gutiz gehienek ez bezala gerlan irabazi ospea ez daukate hainbateko”. Ez dizkizute plazak eta kaleak militarren memoriarekin izendatuko. Erljio diferentek bospasei badaude Utopian, baina elkarrekin toleranteak dira, sinesmen kontuengatik ez dago iskanbilarik. Hala ere, gerraren kontrarioak izan arren, utopiarrek ez dira pazifistak (puntu honetan Moro eta Erasmo ere ez dira berdin-berdinak: Erasmo klerikoa da, Moro politikoa). “Ondorioz eta

nahiz herritar guziek –gizon ala emazte– egun jakinetan militar-ariketak egin ohi dituzten jarraituki, behar-orduan trebe izaiteko, ez dira neholaz gerlan sartzen itsura. Gerla egiten dute bakarrik beren mugen zaintzeko edo adiskideen lurretarik etsaiaren ohiltzeko edo oraino tirano batek leherturik daukan edozein herriren alde –hartaz urrikalduz eta gizontasunez egiten dute orduan– tiranoaren atzaparretarik eta menpetik haren ateratzeko”.

Humanismoak ere mugak dituena, Lord Kantzelari ingelesa izango denak egiten duen kolonialismoaren justifikazioan ageri da. “Nehoz gerta baledi uharte osoko jendetzak legezko kopurua gainditzea, orduan hiri bakoitzetik hiritar zenbait bereiz litezke, aldeko lurralde batean lekukoek berek behar baino biziki lur-eremu gehiago badutelarik eta landu gabe uzten, Utopiako legeak onartuko dituen herri berri bat finka dezaten; baina lekuko herritarrei eskaini ondoan nahi badute, elkarrekin bizitzea. Nahi dutenekin erakunde berak onartuz eta ohitura berdinei jarraikiz aurrintzen dira errazki; batzuen eta besteen onerako (...). Haien legeen menpe bizi nahi ez duten lekuko seme-alabak, utopiarrek ohiltzen dituzte berentzat hartu dituzten lur-eremuen mugatik kanpora. Jazartzen zaizkienei, ordea, gerla egiten diete; uste baitute egiaz zuzen dela gerla egitea, nonnahiko populu batek, berak batere behar ez duen eta alfer eta huts uzten duen lurra, ez dielarik erabiltzera eta baliatzera utzi nahi, lur horiek berak berezko legeaz hazi behar lituzketenei”. Oraindik norbait gogoratuko da menturaz, nola antz-antzeko argudiabidea erabili duen, Ipar Amerikar iaioek mexikar alferrontziei lurralde puskak indarrez kentzea justifikatzeko, Karl Marx jaunak, gizadiaren progresoarentzat hala hobe omen delako. Historia ez omen da errepikatzen, baina konkistaren justifi-

kazioak bai. Nafarroa konkistatzeko arrazoi ona izan da erlijioaren eta arimen salbazioa.

Utopiak ez gaitu salbatuko, baina utopia eta humanismoa behar dugu, bai. Inoiz baino gehiago gaur, berriro (hala esan ohi da beti, ezta?), Ernazimentuan bezalaxe: utopia politikoa, soziala, kulturala, musikala... Askatasunaren, justiziaren, anaitasunaren utopia. Nola gogartu hori, eta nola geuretu? Bi abiamoldetan abia litekeela ageri da. Egungo gizartearen aurka beste bat hobea amestu duten utopia sonatuenak ereduzko kolektibitatearen ideietik partitu izan dira. Gure artean, orain urte batzuk bederen, arrakasta handia izan dute, gaztetan geometria razionalista erradikalak gustatzen direlako beharbada (marxismoa, anarkismoa). Platon: Justizia osoko Hiria; Marx: Berdintasun osoko mundua. Ideia unibertsaletik partikularrera, logikoki deduzituz jaisten da: Justizia bere baitan denaren ideiatik edo gizaki ororen (hots, gizatasun esentzialaren) Berdintasunarenetik, antolaketa sozialeko edozein erabide edo arauditxok “izan beharra” daukanera. Orain ere, askotan, Greziaren erreskatea dela, Europaren etorkizuna dela, garbi edukitzen da ideala, azken helburuan nahi omen denaren ideia orokorra, baina helburu mugatuak, eskuen arteko arazo egunerokoak hobera nola bideratu, ideiarik ere ez da ukaiten. Alegia, Europa eta mundua nola konpondu badakigu, baina Grezia edo Gipuzkoa nola konpondu ez. H. d., egon, ezkerrean gaude, eta inork ez daki ezkerrean non dagoen. (Europako ezker guztia-
ren arazoa da Berlingo murrua jausiz gero). “Utopia, bihotzetik gertu eta begietatik urruti”, juzgatu du Xabier Andonegik. Moro, alderantziz, Utopia inperfektu batekin kontentatzen da. Hiri utopiarren fundamentuak ez ditu ezartzen ideia edo printzipio absolutu batzuetan, à la Platon, baizik

eta enpiriatik abiatzen da, norbanakoaren askatasunetik eta aspirazioetatik, haren plazer fisiko eta espiritualen aitortzatik, eta horiek ziurtatzeko eran diseinatzen ditu Hiria eta erakunde publikoak, administrazioko karguetatik armadako zerbitzuraino. Gizon-emakumearen faborean pentsatzen da Estataua, autoritarismo eta intolerantzia politiko nahiz erlijioso oro, idealaren eta Gobernu tiranikoaren arriskuak saihestuz. Eta, hasteko, ez da gizarte ereduazko suposatuen justifikazio razionalista edo zientifikorik batere pretenitzen. Kontaktuzun bat kontaktzen da, besterik gabe, gizarte hobe baten posibilidadetako bat solasean denbora-pasan bezala jaulkiz.

Ernazentista on gisa, Utopiako urbanismoaz interesatzean, gerraren aukera aurreikusiz hornitu ditu Morok Utopiarren hiriak. Honelaxe deskribatzen digu sistema defentsiboa, agidanez Londresen antzera iruditua: “Harresi gora eta lodi batek, aintz geriza eta dorreekin inguratzen du gazteluria. Eta harresien zaintzeko, hiru aldetarik urik gabeko aska zabal eta barna bat elorri sasiek hartua dute. Laugarren eskualdetik berriz, ibaia bera da aska”. Bitxi samarki, hori dena Erdi Arokoa gehiago da Ernazimentukoa baino. Ernazimentuko garbia Iruñekoa da, harresiak eta zitadela. Horma horiek konkistaren, anexoaren, terrorearen dokumentu bihozgabeak dira, izan (1936ko terrorea barne). Hala ere, misterio bat da arkitektura militar ernazentistak beti eragiten digun liluramendua: esposizio ulergaitza bortizkeria gupidagabearen eta estetika dotoreenarena batera. Funtsean Ernazimentu erromatarraren historia guztia den bezala. Humanismoa eta boterearen anbizio hesigabea, bortxakeria eta estetika harmonizatzekeo ideia inposiblea, artearen bidez lortua. Edota ilusio eta engainua baizik ez da gure sentsazio hori? Erromako ene oroitzapen zaharretan Julio II.aren Rocca di Ostia dago, Os-

tia Antican, handi-handia izan gabe itzelezkoa. Portua pirata turkoen erasoetatik babesteko aitzakian, Della Roverek bere burua Borgiatarretatik kukutzeko eta beharraldian Hiria horniketa kontrolatzeko eraikia. Han errefuxiatu da Errodrigo Borgia Aita Santu izendatua izatean, laster handik ere Frantziara ihes egiteko. 1496an, espainolen eta frantsesen arteko gerren anabasan, Menaldo de Guerra (Agerre?) izeneko kortsario bizkaitarra jabetu bide da gotorlekuaz, Ostiako portua mendean hartuz, Erromako hiriarri kontribuzioa esijituz Tibertik gora hornitzeko edozergatik. Alexandro VI.ak Errege Katolikoei sokorria eskatu behar izan die 1497an. Bost egunetan kanoikada pean eutsi ondoren, kortsario bizkaitarrak Gonzalo de Cordobaren osteari errenditu behar izan du – beste hainbat “bizkaitar” soldatapekok armada setiatzailan zerbitzatzen zuen. Trantsizioko bastioi gorria da, hiruki tankerakoa, dorre potolo borobilarekin nagusi. Gerroxeagoko baluarte ernazentisten erregulartasuna gabe oraindik, izar pentagonalarena –egitamu hori izango du Iruñekoak–, baina, Erromako zeru zabal argiaren azpian, harropuska ikusgarria da, inguruan bilduriko etxartea eta landalur idorra ez dakizu gerizatzen ala desafiitzen.

Teknika militarrak ez ezik, eskolak ere bultzatu ditu Ernazimentuak. (Jesuiten fundazioa Ernazimentukoa da, horrek ere bai baitu Nafarroako historiarekin zerikusirik). Utopiako erresuman andrazkoek nahiz gizonezkoek, hiritar guztiek berdin eskolatuak izan behar dute; bai mutikoak eta bai neskek berdin eskolatzen ditu Morok. Ikasgaiak herriko hizkuntzan ematen dira, ez latinez: “Beren hizkuntzan emana zaie ikasleei irakaspena, ezen ez du hitz-eskasiarik; belarrientzat gozoa da; beste edozeinek bezain zuzen emaiten du gogoko berri”. Horra bulgarearen apologia labur askoa

eta polita. Nafarroan euskarazko eskolak sortzeko higanoten asmoaz oroitzen gara, eta Leizarragaren esanaz: “Berce natione guciéc, ceinec bere lengoagean beçala, Heuscaldunac ere berean duençat, certain iracurtzen ikas ahal deçan...” Nafarroarik gabe, euskarak urte askoan ez du izango sarbiderik eskolan.

10

Azkenaldian gure jendea asko ari da begiak Nafarroa zaharrerantz itzultzen. Iraganari begira etorkizuna ikusi nahiz. Izan ahal izan zen eta izan ez zen euskal historia birreskuratu guran, esango liguke W. Benjaminek. Belaunaldi berrien buru eta bihotzetan, egin ez genuen eta egin beharra daukagun Ernazimentu, ez erromatarra hain zuzen ere, ez-pada geure-geurearen gogoa nabaritzen da pil-pil, nik uste. Nafarroa hura mito bat da, esango dizute (Espainiaren mitoa maiteago dutenek). Eta? Utopia da, erantzungo diegu. Mitoak ez dira beti txarrak. Izarrak dira gau ilunean. Eta utopiaren eta maite dugun mitoaren balio positiboaz eta bien arteko zerikusiaz gogoetatzea eta gure nabigazioko iparrratza izateko biak doitzen asmatzea izango dugu egitekoa. Hori da historia, eta historiaren balioa.

Ernazimentua maite badugu, ez da dena Rafael eta Michelangelo delako. Nafarroa maite badugu, ez da ilargiko Euskal Herri idealen baten ipuinak maite ditugulako. Nafarroako historia ez da ideala. Baina guretzat, bere arriskuekin ere, Nafarroa da gure mitoa, gure utopia.

Kolonian, 2015eko abuztua.